

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**ZEHARKAKO ZERGEN ZERBITZUA**

Bigarren Diputatu Nagusiorde eta Ogasun Finantza eta Aurrekontu, Saileko Foru Diputatua, 8/2026 Foru Agindua, urtarrilaren 13koa. "Tabako laboreen gaineko zerga. Autolikidazioa" 566 eredua onestea

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuaren martxoaren 15eko 205/2012 Foru Aginduaren bidez, 566 eredua onartu zen: "Tabako lanen gaineko zerga. Autolikidazioa."

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 6ko 32/2020 Foru Dekretuak, Arabako Foru Ogasunean aitorpenak eta autolikidazioak bide telematikoz aurkezteko baldintza eta betekizun orokorrak arautzen dituenak, aitorpenak bide telematikoz aurkezteko betebeharra ezartzen die, oro har, jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergapekoei. Arabako Lurralde Historikoko zerga sistema-ren esparruan, bide telematikoz aurkeztu beharko dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak erabakitzen dituen autolikidazioak, aitorpenak, aitorpen likidazioak, eskabideak eta informazio aitorpenak.

Ogasuneko, Finantzetako eta Aurrekontuetako diputatuaren azaroaren 20ko 603/2020 Foru Aginduan zehazten dira bide telematikoa erabiltzea nahitaezkoa duten zerga aitorpenak eta eskabideak.

Agindu honen xedea 566 "Tabako laboreen gaineko zerga. Autolikidazioa" eredu berria onartzea da, aurkezpen bide telematikora egokitzeko.

Horrenbestez, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT**1. artikulua. 566 eredua onartzea**

Bat. Foru Agindu honen eranskinetako «Tabako laboreen gaineko zerga. Autolikidazioa» 566. eredua onesten da.

2. artikulua. 566 eredua aurkezteko behartuak eta epeak

Bat. 566 eredua aurkeztu beharko dute tabako laboreen gaineko zergaren subjektu pasiboek, inportazioaren kasuan izan ezik.

Bi. Eredua aurkeztea eta zerga zorra ordaintzea, oro har, zergaren xede diren produktuak hartzeko establezimendu edo leku bakoitzak egingo du, likidazio aldian egindako eragiketengatik.

Ez da autolikidaziorik aurkeztu beharko likidazio aldian zerga berezien kargapeko produktuen izakinik egon ez bada edo halako produktuen mugimendurik egin ez bada.

Hala ere, likidazio aldi batean karga tasa desberdinak aplikatu behar badira horiek aldatu direlako, subjektu pasiboek autolikidazio bat aurkeztu beharko dute, karga tasa bakoitza aplikatu den aldi bakoitzeko dagozkien kuotak ordainduta.

Zergaren subjektu pasiboak barnekoa ez den Europar Batasuneko lurralde eremutik datozen produktuak jasotzeagatik edo entregatzeagatik bakarrik direnean, ez da beharrezkoa izango autolikidazioak aurkeztea harrerarik edo entregarik egin ez den likidazio aldietan.

Hiru. Likidazio aldia hilabete naturala izango da eta 566 eredua aurkezteko eta, hala bada-gokio, zerga zorra ordaintzeko epea sortzapenak gertatu diren hilabetea amaitu eta hurrengo hogeita bost egun naturaletan izango da, urtarrilean egin beharreko aurkezpenerakoa izan ezik, hori hil horren 31ra arte luzatuko baita.

4. artikulua. 566 eredua aurkezteko modua, baldintza orokorrak eta prozedura

566 eredua nahitaez bide telematikoz aurkeztu beharko da, Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 6ko 32/2020 Foru Dekretuan (Arabako Foru Ogasunean aitortpenak eta autolikidazioak bide telematikoz aurkezteko baldintza eta betekizun orokorrak arautzen dituenak) eta azaroaren 20ko 603/2020 Foru Aginduan (pertsona eta erakunde jakin batzuentzat zerga ereduak eta eskabideak Internet bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituenak) xedatutakoarekin bat etorritik.

Azken xedapena. Indarrean jartzea

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2026ko urtarrileko autolikidazioei aplikatuko zaie lehen aldiz.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 13a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasunaren zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

2. Ekitaldia eta zergaldia ■ Ejercicio y periodo			
Ekitaldia Ejercicio			
Zergaldia Periodo			
Jardurari gabe ■ Sin actividad	5		
Ordezkoa ■ Sustitutiva	901		
Aurreko aurkezpen zk. Nº presentación anterior	902		
Epez kanpo eta errekerimendu bidez aurkeztua	930		
Presentada fuera de plazo por requerimiento			

E. 25/353

566 Eredua

Tabako laboreen gaineko zerga
Autolikidazioa

1. AITORTZAILEA

JEK atalean, Jarduera eta Establezimendu Kodea (JEK) adierazi behar da.

505 ereduako produktuek jasotzeko baimen batek edo batzuek eragin badute autolikidazio hau, JEK eremuan "JBK" idatzi behar da (Jasotzeko Baimenaren Kodea).

2. EKITALDIA ETA ZERGALDIA

Ekitaldia: aitortpenean adierazitako zergaldiari dagokion urtearen lau zifrak jarri behar dira.

Zergaldia:

01 = urtarila	02 = otsaila	03 = martxoa	04 = apirila
05 = maiatza	06 = ekaina	07 = uztaila	08 = abuztua
09 = iraila	10 = urria	11 = azaroa	12 = abendua

Adibidea: 2025eko urria

Ekitaldia: 2025

Zergaldia: 10

3. LIKIDAZIOA

Epigrafe: autolikidazioan jasotako produktuei dagozkien epigrafeak idatzi behar dira, Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 60. artikuluan azaltzen direnak, hain zuzen ere.

Zerga oinarria: likidazio aldiari dagozkion zerga oinarriak izango dira. Epigrafe bakoitzari dagokion unitatean adieraziko dira; bi zifra hamartarrek eman behar dira, gutxiagoz edo gehiagoz biribilduta, hirugarren zifra hamartarra 5 baino txikiagoa edo handiagoa den kontuan izanik.

Zerga tasa: aplikatzeko diren zerga tasak sortzapen uanean indarrean dirautenak izango dira.

Kuota osoa, guztira 104 laukia: epigrafe kode bakoitzaren kuota oso partzialen batura jarriko da.

Kuotako kenkariak 105 laukia: subjektu pasiboak zerga bereziei buruzko arautegian ezarritako kuotako kenkariak aplikatzen dituenetan bete behar da lauki hau.

Kuota likidua, guztira 106 laukia: aurreko ataleko kenkariak kuota osoaren gainean ezarriko dira, eta horren emaitza izango da kuota likido hau.

Autolikidazioak aurkeztu eta kuotak sartzeko epeak

Sortzapenak izan diren hila bukatu eta ondorengo hogeita bost egun naturaleko epea izango da.

LEGE OHARRA. DATUEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (Datuak babesteko erregelamendu orokorra) jasotakoa betetzeko xedearrekin, jakinarazten dizugu ematen diziguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko Zergadunen Fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamenduak zergak kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko egiten dira.

Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.

Erregelamendu horretan aitortzen diren datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezereztzeko, haien aurka egiteko eta datuak mugatzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz, Araba).

Informazio gehiago:

<https://web.araba.eus/es/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>

Modelo 566

Impuesto sobre las Labores del Tabaco
Autoliquidación

1. DECLARANTE

En el apartado C.A.E. se hará constar el Código de Actividad y Establecimiento (C.A.E.).

Si la autoliquidación tiene su origen en una o varias autorizaciones de recepción modelo 505, el campo C.A.E. se cumplimentará con las siglas "C.A.R." (Código de Autorización de Recepción).

2. EJERCICIO Y PERÍODO

Ejercicio: deberán consignarse las cuatro cifras del año al que corresponde el período por el que se efectúa la declaración.

Período:

01 = enero	02 = febrero	03 = marzo	04 = abril
05 = mayo	06 = junio	07 = julio	08 = agosto
09 = septiembre	10 = octubre	11 = noviembre	12 = diciembre

Ejemplo: octubre 2025

Ejercicio: 2025

Período: 10

3. LIQUIDACIÓN

Epígrafe: deberán consignarse los epígrafes correspondientes a los productos por los que se efectúa la autoliquidación y que aparecen recogidos en el artículo 60 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999 de 16 de febrero, de Impuestos Especiales.

Base imponible: las bases imponibles serán las correspondientes al período de liquidación. Se expresarán en la unidad correspondiente a cada epígrafe, con dos cifras decimales, redondeando por defecto o por exceso, según que la tercera cifra decimal sea o no inferior a 5.

Tipo impositivo: los tipos impositivos aplicables serán los vigentes en el momento del devengo.

Cuota íntegra total, casilla 104: se indicará la suma de las cuotas íntegras parciales correspondientes a cada código de epígrafe.

Deducciones de la cuota, casilla 105: esta casilla se cumplimentará cuando el sujeto pasivo se aplique las deducciones de la cuota previstas en la normativa de Impuestos Especiales.

Cuota líquida total, casilla 106: será el resultado de practicar, en su caso, en la cuota íntegra las deducciones a que se refiere el apartado anterior.

Plazos de presentación de las autoliquidaciones e ingreso de las cuotas

Dentro de los veinticinco primeros días naturales siguientes a aquél en que finaliza el mes en que se han producido los devengos.

AVISO LEGAL. PROTECCIÓN DE DATOS

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (Reglamento General de Protección de Datos), le informamos que los datos que nos facilita van a ser incluidos en el Fichero de Contribuyentes titularidad de la Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión, inspección y recaudación de los diferentes tributos.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el citado Reglamento dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, (Plaza de la Provincia, 5, 01001 Vitoria-Gasteiz, Álava).

Para más información:

<https://web.araba.eus/es/aviso-legal-ampliado>